

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda jendaurrean eta ordaintzeko moduan jartzea

Behin-behineko onespena eman zaio trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko erroldari, eta jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunetan, interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsizat joko da, eta kobratzeko aldiari hasiera emango zaio.

2021eko martxoaren 1etik apirilaren 30erako, biak barne, egun baliodunetan ordaindu ahal izango dira borondatezko epean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko ekitaldiari dagozkion ordainagiriak.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek, ordainketa helbideratuta ez badute, Arraia-Maeztuko Udalak Maeztuko banku erakundearen duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, epe horretan. Ordaindu aurretik, zergapekoek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku erakunde edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa. Helbideratutako ordainagiriak banku erakundeetan kobratuko dira epe horretan.

Epe hori igarotakoan premiamendu bidez kobratuko da, halaxe xedatzen baitu Zergabilketarako Araudi Orokorrak. Kobratu beharrekoari, berriz, legez ezarritako errekgua ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutzen interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Maeztu, 2021eko urtarrilaren 26a

Alkatea

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA